## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK

**Programa:** 932204 KATASTROA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**Programa:** 932204 CATASTRO

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Lurraldeko gai horri buruzko informazioa ezinbesteko elementu bihurtu da Administrazio Publikoaren nekazaritza, hirigintza, industria eta abarreko politikak garatzeko.

Katastroko lurzatien datu fisiko eta juridikoak etengabe, arin eta egiati eguneratzeak balio handiko informazioa ematen du zerga kudeaketarako, eta Jabetza Erregistroarekin lotutako zerbitzuak ematea errazten du, ondasun higiezinen transakzioek segurtasun juridiko handiagoa izan dezaten.

Beraz, katastroa mantentzea ezinbesteko tresna da; izan ere, higiezinen egunerokoan sortzen diren lurzoruaren eta eraikuntzen balorazio arazoek, partzelen mugaketek eta era askotako beste batzuek ez dute konponbide errazik, katastroaren deskribapen xehatua ez badago.

Behar horren eta haren legezko erregulazioaren ondorioz, katastro fidagarri bat egiteko betebeharra sortzen da, eta katastro horri eustera behartzen du. Lan hori ekitaldian zehar egin zen Arabako Lurralde Historikoko udalerri guztietan, udalen laguntzarekin.

Arestian azaldutakoaren arabera, katastro mantentze arruntaren berezko lanez gain, ekitaldi honetan honako jarduketa hauek egin dira:

- Amurrio, Aiara, Okondo eta Erriberabeitia udalerrietako Ondasun Higiezinen gaineko Zergari lotutako hiri-higiezinen Balio Ponentzia berriak behin betiko onartu dira.

- Katastroko fitxa elektronikoa ezartzeko lanak egin dira, lehen aipatutako udalerriekin lotutako espedienteak digitalizatuta.

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

La información sobre esta materia del Territorio, se ha convertido en elemento indispensable para el desarrollo de las políticas agrarias, urbanísticas, industriales, etc., de la Administración Pública en general.

La actualización continua, ágil y veraz de los datos físicos y jurídicos de las parcelas catastrales, proporciona una información de gran valor para la gestión fiscal y facilita de la prestación de servicios relacionados con el Registro de la Propiedad, contribuyendo a dotar de mayor seguridad jurídica las transacciones de bienes inmuebles.

Por tanto, el mantenimiento catastral es una herramienta imprescindible, ya que los problemas de valoración de suelo y construcciones que se producen en la realidad inmobiliaria, delimitación de las parcelas y otros de muy diversa índole, no tienen una fácil solución si no se cuenta con una descripción catastral detallada.

De esta necesidad y de su regulación legal, nace la obligación de realizar un catastro fiable, que obliga a su mantenimiento, labor que se ha realizado durante el ejercicio en todos los términos municipales del Territorio Histórico de Álava, con la colaboración de los Ayuntamientos.

En base a lo anteriormente expuesto, además de las tareas propias del mantenimiento catastral ordinario, a lo largo de este ejercicio se han llevado a cabo las siguientes actuaciones:

- Se han aprobado definitivamente las nuevas Ponencias de Valores de los inmuebles urbanos sujetos al Impuesto sobre los Bienes Inmuebles de los municipios de Amurrio, Ayala, Okondo y Ribera Baja.

- Se han llevado a cabo los trabajos para la implantación de la ficha catastral electrónica, con la digitalización de los expedientes relacionados con los anteriormente citados municipios.

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK

**Programa:** 932204 KATASTROA

- Eguzki-energiaren ezaugarri bereziak eta zentralak dituzten ondasun higiezinak baloratzeko txostena onetsi da, eta lurralde historikoan daudenak erroldatu eta baloratu dira, udalek ondasun higiezinen gaineko zergaren kuotak jasanaraz diezazkieten.
- Hasi dira bideak eta eremu publikoak, jabari publiko hidraulikoko eremuak, trenbideak eta abar katastratzeko eta digitalizatzeko lanak, Jabetza Erregistroekin lortutako akordioak betetzeko, jabari publikoaren jabeek jabari publikoa inbadi dezaketen kasuak antzemateko.
- Foru Aldundiko beste sail batzuek eta beste administrazio publiko batzuek eskatu dituzten higiezinen balorazio guztiak egin ziren, horien eginkizunak behar bezala betetzeko.
- Aurrekoarekin batera, urtean zehar arlo honetako beste proiektu handi bat lantzen jarraitu da: Jabetza Erregistroen eta Katastroaren artean informazio grafikoa koordinatzeko beharrezkoa den aplikazio informatikoaren garapena eta etorkizuneko ezarpena, Hipoteka Legea eta Higiezinen Katastroari buruzko Legea erreformatzen dituen 13/2015 Legean xedatutakoa betetzeko. Aplikazio berriaren probak egiten jarraitu da, baina oraindik ez dira amaitu, konplexua delako.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Arabako Lurralde Historikoan ondasun higiezinen katastro eguneratua izateko 01 helburua 2023an bete da, honako lan zehatz hauetan:

- Hiriko katastroko aldaketen kopurua: ........ 14.229
- Landa katastroko aldaketen kopurua: ........ 2.746
- Emandako ebazpenen kopurua ........ 754

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**Programa:** 932204 CATASTRO

- Se ha aprobado la Ponencia de Valoración de los Bienes Inmuebles de Características Especiales – Centrales de energía Solar, y se han censado y valorado las existentes en el Territorio Histórico, con el fin de que los Ayuntamientos les repercutan las correspondientes cuotas del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
- Se han iniciado los trabajos de catastrado y digitalización de los viales y zonas públicas, zonas de dominio público hidráulico, vías férreas etc.., al objeto de dar cumplimiento a los acuerdos alcanzados con los Registros de la Propiedad con el fin de detectar posibles casos de invasión del dominio público por parte de los propietarios/as de parcelas colindantes con el mismo.
- Se han llevado a cabo cuantas valoraciones de inmuebles han sido solicitadas por otros departamentos de la Diputación Foral y otras Administraciones públicas a fin de desarrollar correctamente sus funciones.
- Junto a lo anterior, a lo largo del año se ha seguido trabajando en otro de los grandes proyectos de esta área: el desarrollo y futura implantación de la aplicación informática necesaria para la coordinación de la información gráfica entre los Registros de la Propiedad y el Catastro, a fin de dar cumplimiento a lo dispuesto por la Ley 13/2015, de reforma de la Ley Hipotecaria y la Ley del Catastro Inmobiliario. Se han seguido efectuando pruebas de la nueva aplicación, que aún no han finalizado debido a su complejidad.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

El cumplimiento del Objetivo 01 de Disponer de un catastro actualizado de los Bienes Inmuebles en el Territorio Histórico de Álava, se ha materializado en el ejercicio 2023, en los siguientes trabajos concretos:

- Número de Modificaciones catastrales de urbana efectuadas: ........ 14.229
- Número de Modificaciones catastrales de rústica efectuadas: ........ 2.746
- Nº Resoluciones emitidas ........ 754

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK

**Programa:** 932204 KATASTROA

- Tasazioen kopurua: ........ 39
- Emandako partzela-zedula kopurua: ........ 1.965
- Katastroko webgunera Internet bidez sartutakoen kopurua: ........ 23.145.143
- Internet bidez jasotako eskaeren kopurua: ........ 4.329.878
- Katastroko txostenen kopurua: Egindakoak: ........ 554

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**Programa:** 932204 CATASTRO

- Nº de Tasaciones efectuadas: ........ 39
- Nº Cedulas parcelarias emitidas: ........ 1.965
- Nº Accesos por Internet a la web de Catastro: ........ 23.145.143
- Nº de Peticiones recibidas por Internet: ........ 4.329.878
- Nº Informes catastrales emitidos: ........ 554